




## Azalera handietako salmentak %1,7 handitu ziren

Azalera handietako salmentak  
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: Eustat.

Abuztuan, azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %1,7 gehitu ziren aurreko urtearen aldean. Elikagaien salmenta bere horretan geratu zen (-%0,1), baina gainerako produktuen bilakaera onak konpentsatu zuen (%5,0) jaitsiera txiki hori. Halaber, enplegua %1,9 hazi zen 2021eko datuekin alderatuta.

## Uztailean, eratutako hipoteken kopurua gutxitu zen

Etxebizitzak erosteko hipotekak  
Urte bakoitzeko uztaila



Iturria: INE


Aurtengo uztailean, etxebizitza bat erosteko izenpetu ziren hipoteken kopurua 2021eko hilabete berekoa baino %5,3 txikiagoa izan zen. Beherakada nabarmen handiagoa da 2020ko datuarekin alderatzen bada. Interes tasen igoera egon daiteke hipoteka eskaeraren murrizte horren atzean.



## Eraikuntzaren kostuak moteldu ziren abuztuan

### Eraikuntzaren kostuen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.


**Eraikuntzaren kostuek berriro moteldu zuten beren hazkunde tasa abuztuan, %10,4an kokatu arte.**

Lehengaiak %11,8ko garestitzea izan zuten eta eskulanak %5,8koa. Kostuen igoera handiagoa da obra zibilean (%13,7) eraikinen atalean baino (%9,6).

## Estatuko KPI indizea %9,ora jaitsi zen irailean

### Estatuko KPIaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

**Irailean, Estatuko KPIa %9,ora jaitsi zen, INEk argitaratutako aurreapenaren arabera.**

Beraz, aurreko hilabetearekin alderatuta, puntu eta erdi murriztu da. Elektrizitatearen jaitziera funtsezkoa izan da beherakada horretan, baina baita erregaien eta garraioaren merkatzea ere.